



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko otsailaren 5a

7. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroaren sinboloei buruzkoa (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen karrera profesionaleko sistema arautzen duena (6. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateak “Club Atlético Osasunari” abal bat ematekoa (11. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoetako langileendako eta haren bahituretxeetako pentsiodunendako sari batzuk ezartzen dituen (13. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroaren sinboloei buruzkoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko abenduaren 16an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroaren sinboloei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.-** Nafarroaren sinboloei buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

**2.-** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Foru Araubide Batzordearen esku uztea.

**3.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2003ko otsailaren 24ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2003ko otsailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Nafarroaren sinboloei buruzko Foru Lege proiektua**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Ezkutua, bandera eta ereserkia dira herrien nortasuna adierazteko sinbolo nagusiak.

Sinboloen eta, gehien bat, banderaren esanahia eta garrantzia pentsalari, historialari, soziologo eta politikarien eztabaidagai eta hizpide izan

dira beti. Bestetik, banderek sekulako indarraren sortzaile dira edonon, munduko herri guztietan.

Sinboloek, batik bat banderek eta ezkutuek, herri baten nortasuna, batasuna, elkartasuna eta bihotza adierazten dute. Sinbolismo horrek, gizarteak onetsia eta onartua denean, balio zibil nabaria bereganatzen du: herria jende-talde anitz baina barren-loturadun bihurtzen du, bere nortasuna kontzeptu positibo eta irekitzat hartzen laguntzen dio, partekide den beste eremu batzuetan parte hartuz aberasgarri eta hobera-egingarri zaio.

Nafarroak, historian hain erro sendoak dituen herriak, neurri txikian bada ere, arbuioa edo iraina sentitzen duenean komunitate berezi, bereki eta bereizia izateko ahaleginean, bere sinboloak gizartearen zinezko adierazgarritzat hartzen ditu eta ezin du onartu haiek gutxietsiak izatea, zeren batzuek beste nortasun kontrajarri batzuen sinboloak inposatu nahi baitituzte, eta izaera ofiziala eman nahi diote nekez gauza litekeen beste alternatiba komunitario baten formula baizik ez denari.

Gai honi buruzko aurreko lege-arautzeek ez dute izan Nafarroan behar adina elementu juridiko botere publikoek modua izan zezaten eragingarritasunez zuzendu ahal izateko afera honetan izan diren eta gaur egun ere izaten diren irregulartasun ugari: zenbait udaletan Euskadiko Autonomia Erkidegoko bandera ofiziala baizik ez dute jartzen, beste batzuetan Euskadiko Autonomia Erkidegoko bandera Espainiakoarekin eta Nafarroakoarekin batera, nahiz eta ageri-agerikoa den Nafarroa ez dela autonomia erkidego horretako parte. Euskadiko erkidegoaren sinboloa agertzeak irudi okerra eman dezake, erakundeen aldetiko errealitate falsu batena hain zuzen.

Nafarroan, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoak, tradizio historikoari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitatearen ezkutua, bandera eta bereizgarriak definitu zituen bere 7. artikuluan. Ereserki ofiziala, aldiz, artean legez erabaki gabea zen, Nafarroako sinboloak arautu zituen

maiatzaren 28ko 7/1986 Foru Legea onetsi zen arte.

Foru Lege honek Nafarroako Foru Komunitatearen hiru sinbolo oinarritzkoen erabilera arautzen du, haien presentzia areagotzearen gure gizartearen bizitza ofizialean zein egunerokoan, eta Nafarroaren nortasunari buruzko mezuari euste aldera. Aldi berean, Foru Lege honek botere publikoei egintza jurisdikzional eta administratibotarako aukerak eskaini nahi dizkie sinbolo horien erabilera egokia babesteko.

**1. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateak nortasun-sinbolo bere-bereak hauek ditu: Nafarroako bandera, ezkutua eta ereserkia.

**2. artikulua.** 1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erakundearen sinbolo edo logotipo nagusi gisara gordeko dira Nafarroako bandera eta ezkutua. Bestetik, debeku da banderan edo ezkutuan beste edozein sinbolo, sigla edo logotipo sartzea.

2. Produktuen edo salerosketa gaien jatorriaren adierazgarri gisa erabiltzeko aukera, hala nola alderdi politiko, sindikatu, enpresari-elkarte edo entitate pribatuen sinbolo edo logotipo gisa erabiltzekoa, erregelamenduz arautuko da. Erregelamendu hori Nafarroako Gobernuak ezarriko du.

**3. artikulua.** Nafarroaren sinboloek estatuko legeak estatuaren sinboloei ematen dien babes juridiko bera dute, eta haiek aurreikusten dituzten kasu berberak aplikatzen dira.

## I. KAPITULUA Nafarroako bandera

**4. artikulua.** Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 7.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako bandera ofiziala gorria da, Nafarroako ezkutua du erdian, luzera eta zabalera aldakor baina proporzionatuak dituen ehun errektangeluar batean.

**5. artikulua.** 1. Nafarroako Foru Komunitateak bere bandera ofiziala erabil, zabal eta erakuts dadin nahi du, Nafarroaren nortasunaren eta Foru Komunitatearen batasunaren adierazgarri baita, eta bertan bizi direnen arteko eta Espainiako gainerako herritarrekiko elkartasun ikur.

2. Eraikuntza edo egoitza administratiboetan Nafarroako bandera bereizgarri gisa publikoki erabiltzeak ezinezko bihurtzen du haren ondoan aldi berean besterik jartzea, non ez den Espainiakoa, Europakoa, eta Nafarroako Toki Entitate bakoitzak duena, legez hori bidezko denean, salbu eta 7.3 artikuluan ezarritakoa.

3. Foru Komunitateko herritar guztien eskubide da Nafarroako bandera eraikin hauetako aurrealdean jarrita egotea: Foru Erakundeetako egoitza administratiboak eta zerbitzuak, Nafarroako zuzenbide publikoko erakundeak, Toki Administrazioa osatzen duten entitateak, eta politikoki eta administratiboki herritarren ordezkariak dutenak. Botere publikoek eta epaitegiek legetan diren bitartekoak erabiliz babesteko dute eskubide hau.

4. Eskubide hau exijitzeko egintza publikoa da.

**6. artikulua.** 1. Nafarroako bandera toki nabarmen eta lehentasunekoan egonen da ikusteko moduan, betiere Espainiakoari lehentasuna kendu gabe, Foru Erakundeetako eta Nafarroako zuzenbide publikoko erakundeetako egoitza administratibo guztien eta zerbitzu-eraikin guztien aurrealdean.

2. Halaber, Foru Komunitateko Administrazioa eta bere menpeko organoak osatzen dituzten unitate eta organoetan eta Nafarroako zuzenbide publikoko erakundeetan titular direnen bulego ofizialen barrenean ere egonen da Nafarroako bandera, legeari jarraikiz behar diren gainerakoekin. Arau horrek lehendakaritik hasi eta zuzendari nagusiaren edo baliokidearen mailara bitarte hartzen du. Aipatu unitate, organo eta erakundeetan titularrek betebeharrak pertsonala izanen dute hori betetzea.

3. Aurreko zenbakian edo foru lege honen 5. artikuluko 2. puntuan ezarritakoari segitu ezean, ondorio guztietarako, karguak berarekin dakartzan betebeharrak eta beharkizunak betetzen ez direla ulertuko da.

**7. artikulua.** 1. Nafarroako Toki Administrazioa osatzen duten entitate guztiak behartuta daude Nafarroako bandera edukitzera beren egoitzetan eta beren menpeko zerbitzu publikoetarako eraikinetan. Behartuta daude, halaber, Nafarroako bandera jartzera beren agintarien bulego ofizialetan eta Osoko Bilkurarako Gelan, gau eta egun barrenean eta goizeko 8etatik arratseko 8ak arte gutxienez kanpoaldean.

Nafarroako Gobernuak lehendakariak dola egun ofiziala dekretatu duenean baizik ez da paratuko Nafarroako bandera haga erdian edo ezkutuan dola-xingola duela, eta betiere hark agindutako epean.

2. Normalean, toki entitate bakoitzeko bandera ofizialarekin batera, udalaren eraikinetan, Nafarroako bandera ofiziala egonen da, Espainiakoa urriaren 28ko 39/1981 Legean ezarri bezala, eta Europakoa horrela erabakitzen denean, baina ez beste ezein.

3. Salbuespen gisa, aipatu banderekin batera, baina ez bakarrik, beste estatu, autonomia erkidego edo toki entitate batzuetako banderak jar litezke, estatu, autonomia erkidego edo toki entitate harenganako begirunezko ekitaldi batean, lurralde anfitrioiako agintari eskudunak ofizialki gonbidatuak direnean, eta bisita ofizialetan, edo toki entitateen arteko adiskidantzaren ospakizunetan, betiere ospakizunak dirauen bitartean.

4. Nafarroako toki entitateetako alkateak berak arduratuko dira, zuzenean edo beste norbaiti delegatuz, artikuluko honetan ezarritakoa bete dadin bere agintepeko lurraldean. Betebehar hori bere gain ez hartzea edo foru lege honetako 5. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoa ez betetzea, ondorio guztietarako, kargu publikoak bere dituen eskubide eta betebeharren urratzea da.

**8. artikulua.** 1. Foru Lege honetako 5. artikuluan azaldutakoaren ildoan, Nafarroako bandera jartzea nortasunaren eta elkartasunaren ikurra den aldetik, entitate eta erakunde publiko guztiek eta ordezkari politikoak, sindikala edo lanbideena duten organizazio guztiek, ohiko dirusarreraren erdia baino gehiagoko zenbatekoan aportazio, dirulaguntza edo finantzabideren bat hartzen baldin badute Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura edo gainerako Administrazio Publikoen kargura, jarrita izan beharko dute Nafarroako bandera —eta lege bidezko direnak— beren egoitza eta eraikinen kanpoaldean eta barnealdean, foru lege honetan toki entitateentzat ezarritako moduan.

2. Beharkizun hori ez betetzeak haxe izanen du ondorio: aportazio, dirulaguntza edo finantzabide horiek osorik edo partez kentzea, moztea eta indarrak gabe uztea, eta hartutakoa itzuli beharra, edo horiek ukatzea. Hori dena aurretik tipifikatuko diren kasuen arabera. Horretarako dagokion prozedura erabiliko da, aurretik erregelamenduz arautua. Prozedura hori, dena dela, ez da eragozpen izaneren araua betetzera beharturik dauden pertsonen izan litzaketen erantzukizun pertsonalak eskatzeko.

3. Toki entitateen kasuan, aurreko atalean ezarritakoari buruz jasaten dituzten kalte ekonomikoak ez betetzearen ardua duen agintariari exijitzen ahal zaizkio, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztientzako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen X. Tituluan xedatutakoari jarraikiz.

**9. artikulua.** Nafarroako bandera Foru Erakundeetako, Nafarroako zuzenbide publikoko erakundeetako eta Foru Komunitateko Administrazio Publikoetako egoitza eta eraikinen kanpoaldean

zein barrenean jarrita dagoenean, 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, bandera lehentasuneko tokian egonen da, betiere Espainiako banderari duen lehentasuna kendu gabe.

**10. artikulua.** 1. Nafarroako bandera, bakarrik Espainiako banderarekin batera dagoenean, lehendakariaren edo bandera kokatu duenaren ezker aldean jarriko da, eta ikusleen edo kalean haiei begira dagoenaren eskuinaldean. Udaletako banderekin edo Nafarroako Toki Administrazioa osatzen duten beste entitate batzuek erabiltzen dituztenekin jartzen denean, Espainiakoaren eskuinaldean egonen da, banderen kopurua bakoitia denean, eta ezker aldean bikoitia denean, aurreko atalean adierazitako eran betiere.

Ez da zilegi Nafarroako bandera jartzea enpresen, marka komertzialen, auzo-elkarteen edo entitate pribatuen maila berean.

2. Jartzen den Nafarroako bandera ezin izanen da Espainiakoa baina handiagoa izan, ez eta haiekin batera jarrita dauden beste entitate batzuenak baino txikiagoa.

3. Nafarroako banderarenganako eta aurretik aipatutako beste bandera ofizialenganako errespetuzko protokoloko agurra honelakoa izanen da: buru-makurtu txiki bat, aurreranzkoa, banderak igo edo jaisten direnean. Bertan diren agintari eta kargudun publikoei exijitu egingen zaie men egiteko erakusgarri hau; gomendatu, ordean, bertan diren gainerako pertsonen.

**11. artikulua.** Urtero, Nafarroaren Eguneko jardueren artean, Nafarroako Gobernuak bultzaturik, Nafarroako banderari omenaldia egiteko ekitaldi bat egingen da, eta banderaren erabilera sustatuko da mota desberdineko lehiaketa, erakusketa, entzunaldi, sariketa edo txapelketen bidez. Nafarroako Gobernuak, halaber, hedabideetan Nafarroaren sinboloen irudi korporatiboaren publizitatea egin dadin sustatuko du, herritarrek Nafarroako nortasun-zeinuenganako begirunearen balioaz jabetu daitezen.

**12. artikulua.** 1. Orobat, urtero, Nafarroaren Egunaren aurreko edo ondoko egunetan, eta ikastetxeetan lanegun diren egunetan, ekitaldi akademiko eta kultural xumeak egingen dira Nafarroako banderaren eta Nafarroaren beste nortasun-erakutsi batzuen balio eta esanahiari buruz. Ekitaldi horiek ikastetxeko zuzendaritza-taldearen eta irakasleen ardurapean egingen dira ikastetxe publiko eta itundu guztietan, haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan eta unibertsitate-mailan.

2. Jardunaldi edo ekitaldi horietan Nafarroako banderaren, ezkutuarien eta ereserkiaren kopiak banatuko zaizkie, dohainik, nahi duten ikasleei. Kopia horiek Nafarroako Gobernuak emanen dizkio dohainik ikastetxeari, ikastetxeak edo bertako irakasleek eskatuta.

**13. artikulua.** 1. Nafarroako Egunaren inguruko jardunaldiekin batean, bultzatuko da udal eta kontzejuek beren herritarrei Nafarroako bandera, ezkutua edo ereserkia dohainik bana diezaieten.

2. Bultzatuko da, herriko festak edo jai edo festaburuak direla-eta, alkate eta kontzejuburuek materiala bana diezaieten herritarrei Nafarroaren nortasunaren adierazgarriekin apain ditzaten etxe-aurre eta balkoiak.

3. Nafarroako Gobernuak alkate eta kontzejuburuei bandera, ezkutu eta ereserkiak emanen dizkie, dohainik, aurreko zenbakietan ezarritakoa bete dadin, eta kale eta plazak apaintzeko. Banderak, ezkutu eta ereserkiz hornitzeak dakarren gastua Nafarroako Aurrekontu Orokorren bizkar finantzatuko da.

## II. KAPITULUA Nafarroako ezkutua

**14. artikulua.** Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako ezkutua urrezko kateez osaturik dago, hondo gorri gainean, esmeralda bat erdian, beronen kate-mailazko zortzi besoen elkargune gisa, eta haien gainean Errege-koroa, Nafarroako Antzinako Erreinuaren sinboloa.

Hori horrela delarik ere, Nafarroako Gobernuak Nafarroako ezkutu ofizialaren logotipo bat hartzen ahal du erakundearen irudi gisa, hau da, diseinu grafiko errazago eta gaurkotua, garaian garaiko gustu estetikoaren arabera.

**15. artikulua.** Nafarroako ezkutua edo bere logotipoa, Nafarroako banderaren barrenean ez ezik, hauetan ere egonen da:

a) Foru Komunitateko erakundeetako agintarien langetan eta egoitzetako bilera-geletan.

b) Foru Komunitateko Erakundearen Ibigailuen Parkeko ibilgailuetan.

c) Foru Komunitateko erakundeen ordezkari diren agintariak luzatutako edozein diploma, ziurtagiri edo titulutan.

d) Foru Komunitateko Erakundeetan ofizialki erabiltzen diren agiri, inprimaki, zigilu eta idazpuruetan.

e) Foru Komunitateko Erakundearen argitalpen eta iragarki ofizialean.

f) Foru Komunitateko Erakundearen ordezkari diren agintariak erabiltzen dituzten adierazgarri ofizialean.

g) Erabilera ofizialeko beste zenbait toki edo objektutan, haien esanahai edo adierazgarritasunagatik hala erabakitzen denean.

h) Nafarroako Gobernuak erregelamenduz erabakitzen duen kasuetan.

**16. artikulua.** Foru lege honek ez du eraginik izan Foru Komunitateko eraikin edo monumentuetan diren ezkutuetan, baldin eta interes historiko-artistikotzat hartzen badira, edo hala ez bada ere, eraikin edo monumentu horien apaingarri eta dekorazioaren parte finkoa badira, hau da, objektuari kalterik egin gabe haietatik bereizterik ez badago.

## III. KAPITULUA Nafarroako ereserkia

**17. artikulua.** Nafarroako ereserkia "Gorteen ereserkia" deritzona da.

**18. artikulua.** Nafarroako ereserkia Foru Komunitateko Erakundeek antolatzen dituzten ekitaldi ofizial esanguratsuen hasieran edo bukaeran aditu behar da.

**19. artikulua.** Debeku da Nafarroako ereserkia erabiltzea bere goi-goiko esanahia gutxiesten duten ekitaldi, modu edo bertsoietan.

Nafarroako ereserkiarenganako errespetuzko protokolo-modua hau da: modu ofizialean jotzen ari diren bitartean ekitaldian diren agintari eta kargu publikoak isilik adituko dute, zutik, eta militarren "tente" bezalako posizioan.

### Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe gelditzen dira maiatzaren 28ko 7/1986 Foru Legea eta foru lege honetan ezarritakoari kontra egiten dioten lerrun bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

### Azken xedapenak

**Lehenbizikoa.** Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan ezarritakoa aurrera eraman, garatu eta betearazteko behar diren arauzko xedapenak agindu ditzan.

**Bigarrena.** Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen karrera profesionaleko sistema arautzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko abenduaren 30ean hartutako erabakiaren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen karrera profesionaleko sistema arautzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**1.-** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen karrera profesionaleko sistema arautzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

**2.-** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

**3.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2003ko otsailaren 24ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2003ko otsailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainen karrera profesionaleko sistema arautzen duena

### ZIOEN AZALPENA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko langileen berariazko araubideari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeak xedatzen duenez, erakunde autonomo horrek langileen mailaigoera bultzatuko du, karrera profesionalean oinarrituriko pizgarriak ezarri.

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen bidez, erakunde hartako sendagileen karrera profesionaleko sistema arautu zen. Foru Lege horretako azken xedapenetariko lehenbizikoaren bidez aukera eman zen, negoziatio kolektiboaren ondoren, karrera profesionaleko sistema hura Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko beste langile batzuei ezartzeko, Osasun Sistema Nazionaleko antzeko irizpideen arabera edo Foru Komunitateko funtzio publikoan, kasuan-kasuan.

Kontuan hartu dira aurrekari haiek eta Administrazioak eta sindikatuek Nafarroako administrazio publikoetako langileen lan baldintzei buruz izenpeturiko Ituna. Itun horrek xedatzen duenez, "2003ko urtarrilaren 1etik aurrera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainendako karrera profesionaleko sistema bat ezarriko da".

Testu hau bat dator 2002ko apirilaren 15eko Ituna izenpetu zuten sindikatuekiko negoziatioan hitzarturiko orotariko zehaztapenekin.

### 1. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Foru Lege honen bidez araturiko karrera profesionaleko sistema Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua izeneko erakunde autonomoan aritu eta lanpostu baten jabe diren langileei aplikatuko zaie, betiere Zerbitzu hartako langileen berariazko araubideari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko eranskinean aipatzen diren estamentu eta espezialitateetarako izendatuak badira. Hona hemen:

a) "A.3 estamentua, osasun arloko diplomadunak", "A.3.1 espezialitatea, Erizaintza".

b) "A.3 estamentua, osasun arloko diplomadunak", "A.3.2 espezialitatea, Obstetria eta Ginekologia".

### 2. Foru Lege hau ez zaie aplikatuko:

a) Kupoko eta eskualdeko langileei.

b) Artikulu honetako 1. puntuan adieraziriko estamentu eta espezialitateetarako izendaturik ez dauden langileei, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan badihardute ere eta osasun teknikari laguntzaileen edo Erizaintzako unibertsitate-diploma badute ere.

**2. artikulua.** Karrera profesionalaren definizioa eta mailak.

1. Karrera profesionala Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen banakako

saria da, ekonomiko eta administratiboa, lanean jardun eta irauteagatik, eta, horrekin batera, lanbidean hobetu eta gaurkotzean eta lorturiko emaitzetan irabaziriko merezimenduengatik.

2. Karrera profesionaleko sistema lau mailatan banatzen da. Mailaz igotzeko baldintzak Foru Lege honetako 4. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen dira.

### 3. artikulua. Karrera profesionaleko lansariak.

1. Karrera profesionala berariazko osagarri bat emanez pagatuko da. Osagarri hori lansari gehigarritzat joko da, urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko 6. artikuluan xedatu bezala. Foru Lege horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikiriko langileen berariazko araubidea arautu eta karrera profesionalean lorturiko maila bakoitzean jarduteagatik lansariak ezartzen ditu.

2. Karrera profesionaleko osagarria urtean-urtean hamalau sarien bidez pagatuko da, hilero. Haietariko hamabi ohikoak izanen dira eta beste biak, ohiz kanpokoak.

### 4. artikulua. Mailaz igotzeko betebeharrak.

1. Mailaz igo ahal izateko batera betebeharrak hauek bete beharko dira:

a) Karrera profesionaleko aurreko mailan 5. artikuluan aipatzen diren denboraldietan irautea.

b) Iraunaldian 6. artikuluan xedaturikoaren arabera eskatzen diren puntuak lortzea.

2. Artikulu honetan eskatzen diren betebeharrak betetzen direla frogatu eta hurrengo urteko urtarrilaren 1ean izanen ditu ondorioak maila-igoerak.

### 5. artikulua. Iraunaldiak

1. Karrera profesionaleko hurrengo mailara igotzeko iraualdi hauek ezartzen dira:

– 5 urte, I. mailatik II. mailara igotzeko

– 7 urte, II. mailatik III. mailara igotzeko

– 8 urte, III. mailatik IV. mailara igotzeko

2. Iraunaldia kontatzeko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanpostu baten jabe direla emaniko zerbitzuak hartuko dira aintzakoztat, betiere Foru Lege honetako 1. artikuluko 1. idatz-zatian adierazten diren lanpostuetarako izendaturik egonez gero eta batera baldintza hauek betez gero:

a) Jardunean edo Osasun Departamentuko edo haren erakunde autonomoetako izendapen libreko karguetan aritzeagatik zerbitzu berezietan egotea.

b) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan Foru Lege honetako 1. artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen den izendapenari dagokion lanpostuan egiazki aritzea edo bestela Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako burutzetan aritzea.

Hauek denak ere joko dira lanean egiazki arituriko iraualditzat: langileak istripuz, eritasunez edo amatasunez gaixo-agiria hartuta emaniko denbora, legez ezarritako baimen eta lizentziak lansaria kobratuta gozatzeko lanetik kanpo emaniko denbora eta Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legeko 24. artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusiriko aldi baterako zerbitzuetan ariturikoa.

3. Osasun Sistema Nazionalean edo Europako Batasuneko kide diren estatuetako osasun sistema publikoetan lanpostu baten jabe izanda emaniko zerbitzuak bigarren xedapen gehigarriko 1. puntuan xedaturikoaren arabera kontatuko dira.

### 6. artikulua. Mailaz igotzeko eskaturiko puntuak.

1. Mailaz igo ahal izateko, langileek, kasuan kasuko irauandian, helburuak lortzeko eta lanbidean hobeki aritu eta gaurkotzeko betebeharrak bete beharko dituzte, betiere Foru Lege hau garatzeko ematen diren erregelamenduzko xedapenen bidez onesten den baremoaren arabera neurturik.

2. Helburuak lortzeko atalerako ezarritako puntuak, mailaz igotzeko guztira behar diren puntuak erdiak adina eginen dute gutxienez ere, eta hark zehaztuko ditu unitatearen helburuen nondik norakoak eta langileak helburu horiek lortzeko izaniko parte-hartzea.

3. Lanbidean hobetu eta gaurkotzeko atalean baloratuko dira borondatezko prestakuntza etengabeko jarduerak, dela irakasle lanetan, dela ikasle lanetan, ikerketak, zentro edo zerbitzuetan lan antolamendu eta sisteman zuzenean hobetzeko proiektuak prestatu eta burutzekoak eta zuzendari eta kudeatzaile lanetan emanikoak.

### 7. artikulua. Ebaluazioko sistema.

1. Helburuak noraino bete diren aurrekontualdia bukatzean ebaluatuko da, urtero, erregelamendu bidez ezartzen den prozedurari lotuz.

Kasuan kasuko Ebaluazio Batzordeak azken hitza izanen du zentroetako eta unitate organikoetako arduradunek eginiko ebaluazioaren aurrean interesatuek azalduko desadostasunen gainean.

2. Lanbidean hobetu eta gaurkotzeko jarduerak kasuan kasuko Ebaluazio Batzordeak ebaluatuko ditu, interesatuak eskaturik, mailaz igotzeko

5. artikuluan xedaturiko iraunaldia buruturikoan, erregelamendu bidez ezartzen den prozedurarekin bat.

3. Maila-igoeraren gaineko ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea erregelamendu bidez ezarriko da, eta ez da behin ere sei hilabeteetik goitikoa izanen. Interesatuaren eskabidea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erregistro ofizialean sartzen denean hasiko da epea. Gehieneko epea ebazpenik gabe bukatzen bada, ulertzen ahalko da eskabidea ezetsi dela, Administrazioaren isiltasuna dela-eta.

**8. artikulua.** Maila batean emaniko iraunaldia-  
ren ondorioak.

Langileak Foru Lege honetako 5. artikuluan adieraziriko epea bete bai baina 6. artikulua-  
ren arabera mailaz igotzeko puntuak lortzen ez badi-  
tu, gero batean mailaz igo ahal izateko aski izan-  
en da helburuak lortzeko eta lanbidean hobetu  
eta gaurkotzeko baldintzak betetzea.

**9. artikulua.** Ebaluazio Batzordeak.

1. Erregelamendu bidez Osasunbidea-Nafar-  
roako Osasun Zerbitzuko arloetan osatu beharre-  
ko Ebaluazio Batzordeak sortuko dira, Foru Lege  
honetan aurreikusiriko eginkizunak garatzekoak.

2. Ebaluazio Batzordeak parekideak izanen  
dira, alegia, Osasunbidea-Nafarroako Osasun  
Zerbitzuen ordezkariak langileen ordezkari-  
tza eta parte-hartze organoenak adina izanen dira,  
Foru Lege hau garatzeko ematen diren arauetan  
xedaturikoaren arabera.

### Xedapen gehigarriak

**Lehenbizikoa.** Karrera profesionaleko osaga-  
rrien zenbatekoak.

1. Erizainen karrera profesionaleko osagarrien  
urteroko zenbatekoa, hamalau epetan pagatuko  
dena, ehuneko hauetan ezartzen da:

– II. maila: B mailaren hasierako lansariaren  
%3.

– III. maila: B mailaren hasierako lansariaren  
%6.

– IV. maila: B mailaren hasierako lansariaren  
%8.

2. 1. idatz-zatian xedaturikoa galarazi gabe,  
bermatuko da Osasunbidea-Nafarroako Osasun  
Zerbitzuko erizainen karrera profesionaleko siste-  
maren ondoriozko lansarien urteroko kostuak  
egiazki 2.404.048,42 euro egin dezala. Zenbateko  
hori 2003. ekitaldiari aplikatuko zaio eta ondoren-  
go ekitaldietan gaurkotuko da, eskuarki ekitaldi

bakoitzean lansariak handitzeko onesten dena  
gehitzuz.

Horretarako, urte bakoitzean zenbateko haren  
eta aurreko 1. idatz-zatiaren arabera karrera pro-  
fesionala dela-eta pagatzen diren lansarien urte-  
roko egiazko kostuaren arteko aldea, halakorik  
bada, Foru Lege honen aplikazio eremuko langile-  
en artean banatuko da. Alde hori jardunean eta  
karrera profesionaleko II., III. eta IV. mailetan dau-  
den langileen artean banatuko da, haietariko  
bakoitzak kasuan kasuko ekitaldian harturiko zen-  
batekoarekiko proportzioan.

**Bigarrena.** Egoera bereziak.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzu-  
an lanpostu batez jabetzen diren langileak karrera  
profesionaleko I. mailan sartuko dira, betiere Foru  
Lege honen aplikazio eremuko izendapenen bat  
badute eta frogatzen badituzte lanpostu baten  
jabe zirela Osasun Sistema Nazionalean edo  
Europako Batasuneko kide diren estatuetako sis-  
tema publikoetan zerbitzuak.

Hala ere, lanpostuaz jabeturik emaniko zerbi-  
tzualdiak eta lanbidean hobetu eta gaurkotzeko  
merezimenduak, interesatuak frogatzen baditu,  
erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan kon-  
tuan hartuko dira atxiki behar zaioneko karrera  
profesionaleko maila zehazteko. Maila horren  
esleipenak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zer-  
bitzuan lanpostu batez jabetu eta hurrengo urteko  
urtarrilaren 1ean izanen ditu ondorioak.

Aurreko lerroaldean xedaturikoaren arabera  
ematen ahalko den gehieneko maila III.a izanen  
da. Karrera profesionaleko IV. mailara igo ahal  
izateko, betiere Osasunbidea-Nafarroako Osasun  
Zerbitzuan lanpostuaz jabeturik behar den iraunal-  
dia bete beharko da. Gainera, iraunaldi horretan  
langileak helburuak betetzeko eta lanbidean  
hobetu eta gaurkotzeko nondik norakoak gauditu  
beharko ditu, Foru Lege honetan eta hura gara-  
tzeko xedapenetan xedaturikoaren arabera.

2. Oinarrizko osasun laguntzako taldeetako  
edo laguntza espezializatuko zerbitzu hierarkiza-  
tuetako lanpostuak lortzen dituzten kupo eta  
eskualdeko langileak, horietan ohiko lanaldia egi-  
ten badute, lehenbiziko xedapen iragankorrean  
ezarriko epeen arabera bidezko den karrera pro-  
fesionaleko mailari atxikiko zaizkio.

3. Langileen ordezkari-  
tza organoetako kideei  
legeek ezarri bezala lanaldi osorako ordu ordaina  
badute, egoera horretan dirauteino, mailaz igotze-  
ko, iraunaldiak betetzeaz gain, lanbidean hobetu  
eta gaurkotzeko jardueri buruzko baremoko ata-  
leko betebeharrak eskatu eta ebaluatuko zaizkie.



4. Lanaldi murriztuaren eta lanaldi ez osoaren kasuei aplikatu beharreko araubidearen berezitasunak Erregelamendu bidez ezarriko dira. Araubide horren funtsa proportzionaltasuna izanen da, bai iraunaldiak kontatzeko, bai mailaz igotzeko eskaturiko puntuen betebeharrak ebaluatzeko.

Aurreko lerroaldean xedaturikoa ez zaie aplikatuko adin edo elbarritasunagatik senide bat zaintzeko legez ezarriko lanaldi-murrizketaren kasuei, lansariak proportzio berean murriztu beharra galarazi gabe, bidezko bada, karrera profesionaleko osagarria barne.

5. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-erikiko aldi baterako kontratuen arabera 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera emaniko zerbitzuak, Foru Lege honetako 1. artikuluan aipatzen diren estamentu edo espezialitateetarako, lanpostuaz jabe diren langileendako baldintzen antzera ebaluatuko dira, baldin eta langileek aldi baterako kontratuaren xede den lanpostuan gutxienez ere ebaluatu beharreko urte natural bakoitzean urteko lanaldiaren ehuneko berrogeita hamarrean jardun dutela frogatzen badute.

Foru Lege honetako 5. eta 6. artikuluetan xedaturikoarekin bat mailaz igotzeko, aldi baterako kontraturiko langileak lanpostu baten jabe bihurtzen direnetik aurrera eta bakarrik kasu horretantxe hartuko dira kontuan ebaluatu beharreko iraunaldiak.

#### **Xedapen iragankorrak**

**Lehena.** Karrera profesionaleko hasiera bateko mailen esleipena.

1. Foru Lege honen aplikazio eremuko langileak, Osasunbidea-Osasun Nafarroako Zerbitzuan badihardute hark indarra hartzean eta lanpostu baten jabe badira, 2003ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin sartuko dira karrera profesionaleko sisteman, edo, gero gertatuz gero, lanpostuaz jabetu eta hurrengo hilaren lehenbiziko egunean, xedapen iragankor honetan ezarriko baldintzetan.

2. Aurreko lerroaldean aipatu diren langileei behin bakarrik esleituko zaie maila hasiera batez, Osasun Zerbitzu Nazionallean edo Europako Batasuneko kide diren estatuetakoko osasun sistema publikoetan lanpostu baten jabe zirela emani-

ko urteen arabera, betiere Foru Lege honetako 1. artikuluko 1. idatz-zatian xedatu bezala izenda- tuak badira, Foru Lege honetako 5. artikuluko 1. idatz-zatian ezarriko urte-mailaketaren arabera.

3. Lanpostu baten jabe emaniko urteak maila hasiera batez esleitzeko behar direnak baino gehiago izanez gero, etorkizunean mailaz igotzeko eskaturiko iraunaldia zehazteko kontuan hartuko dira. Halaber, baremoaren arabera helburuak lortzeko eta lanbidean hobetu eta gaurkotzeko behar diren puntuak, karrera profesionaleko maila hasiera batez esleitzeko ondorioak sortzen direneko egunaren eta Foru Lege honetako 5. artikuluan aurreikusiriko iraunaldia betetzen deneko egunaren arteko denborarekiko proportzionaltasunez eskatuko dira.

**Bigarrena.** Osasun teknikari laguntzaile-fisioterapeuta izendaturiko langileak.

1. Foru Lege honetan ezarriko karrera profesionaleko sistema osasun teknikari laguntzaile-fisioterapeuta izendaturiko langileei aplikatuko zaie, Fisioterapiako unibertsitate-diploma sortu eta diploma horrek indarra hartu baino lehen lanpostu haiek eskuratu bazituzten.

2. Ez zaie aplikatuko Foru Lege honetan ezarriko karrera profesionaleko sistema Fisioterapiako unibertsitate-diploma sortu eta gero fisioterapeuta izateko dei eginiko lanpostuak eskuratu dituztenei, osasun teknikari laguntzailearen titularen jabe badira ere eta Fisioterapiako espezialitatea badute ere.

#### **Xedapen indargabetzailea**

Indargabetu egiten dira Foru Lege honetan xedatutakoaren aurkako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

#### **Azken xedapenak**

**Lehenbizikoa.** Foru Agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**Bigarrena.** Erregelamenduen bidezko garapena.

Gobernuari baimena ematen zaio Foru Lege hau zuzentasunez betearazi eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.



## Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateak “Club Atlético Osasunari” abal bat ematekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko abenduaren 30ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateak “Club Atlético Osasunari” abal bat emateko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.-** Nafarroako Foru Komunitateak “Club Atlético Osasunari” abal bat emateko Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekota izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**2.-** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

**3.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateak “Club Atlético Osasunari” abal bat ematekoa

### ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioak, I. Tituluko Hirugarren Kapituluako 43. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen diren gizarte eta ekonomiaren arloko iradokizunen artean, honakoa adierazten du: “agintari publikoek osasunerako hezkuntza, gorputz hezkuntza eta kirola bultzatuko dute. Halaber, aisialdia zuzentasunez erabiltzeko erraztasunak emanen dituzte”.

Nafarroako Foru Komunitateak erabateko eskumena du kirola sustatu eta aisialdia zuzentasunez erabiltzeko, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren

10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikuluko 14. idatz-zatiaren arabera. Eskumen hori Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legea onestean erabili zuen.

Ezin ukatuzkoa da kirola, gorabehera guztietan, eta bereziki ikuskizuna den aldetik, jendetza handiendako gertaera bat dela eta, gizarteko ekitaldien artetik, jendea mugiarazi eta erakartzeko ahalmenik handienetarikoa du.

Kirolen barruan nabarmena da “Club Atlético Osasunaren” jardura. Talde honek erro sendoak ditu Nafarroako Foru Komunitatean. Kirola bultzatzen du, bereziki gazteen artean, eta horrekin batera, ikuskizuna den aldetik, hemengo zerbitzuen sektorearendako dirusarrera handiak sortzen ditu.

Hori dela eta, futbol-elkarte haren egoera finantzarioaren zaila ikusirik, Nafarroako Gobernuak komenigarritzat jo du gizarte eta ekonomia-errendako onura hura babestu eta piztea. Horretarako proposatu du Osasunari Nafarroako Foru Komunitatearen abal bat ematea, haren kredituak bermatzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak xedatzen duenez, legeetan aurreikusiriko kasuetan, Foru Komunitateak kredituen ondoriozko obligazioak bermatzen ahal ditu, pertsona fisiko edo juridikoek, publikoek edo pribatuek Espainian zein atzerrian hitzartzen dituztenak, behar den abala emanaz. 81. artikulua xedatzen duenez, abalek ezin gaindituko dute Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak aurrekontualdi bakoitzerako ezartzen duen muga eta, Nafarroako Gorteen espresuki baimentzen dutenean izan ezik, pertsona fisiko edo juridiko bat ere ezin izanen da Foru Lege hartan baimenduriko mugaren %5etik goiti egiten duten abalen onuradun.

Kasu honetan, “Club Atlético Osasunaren” jardura Nafarroako Foru Komunitatearendako interesgarritzat jotzen denez, bidezko da abala Foru Lege honetako artikuluetan adierazten diren baldintzetan ematea.

**1. artikulua.** “Club Atlético Osasunari”, G31080179 IFZ duenari, abal bat ematen zaio, gehienez ere 18.030.363,13 eurokoa. Abal horren xedea futbol-elkarte horrek dituen zorrak finantzatu edo kitatzea da. Abalaren kontzeptuak 2002ko ekainaren 30eko egoera-balantze auditatuan eta auditoretzak 2002ko uztailaren 23an eman txoste-

nean aipatzen dira. Bakoitzaren zenbatekoak Foru Lege hau betetzean zehaztuko dira. Hortik kanpo gelditzen dira dieta, ordezkartzaren gastu eta kiroletik kanpoko gastuengatik sorturiko zorrak.

**2. artikulua.** 1. Baimenduriko abalak entitate hartzekodunari bermatuko dio entitate zordunak hitzarturiko kreditu edo maileguen unean uneko zorraren saldo osoa itzuli beharra.

2. Muga eguna baino lehen edozein zenbateko pagatu ezik, hartzekodunak esku izanen du obligazio osoa pagatzera prematzeko eta halaxe eskatzen ahalko du bermatzailearen aurrean, adieraziriko gehieneko mugarekin.

3. Nafarroako Foru Komunitateak solidarioki abalatuko ditu "Club Atlético Osasunak" dituen obligazioak, bermaturiko kreditu edo maileguen arabera, eta Nafarroako Foru Berriko 525. Legean aipatzen den eskusioaren onurari uko eginez.

**3. artikulua.** Bermeak gehenez ere hamazazpi urteko epea izanen du, hala bada, ezaldia barne. Entitate abalatuak harturiko dirua entitate hartzekodunari osorik itzultzean bukatuko dira epe horretako ondorio guztiak.

**4. artikulua.** Entitate abalatuak aski den bermea pagatu beharko dio Nafarroako Foru Komunitateari, zuzenbideak onartzen duen edozein baliabide erabilirik, kostuak eta gastuak barne. Gaur egun aski izan ez baledi, geroko ondasunekin aurre eginen lioke bermaturiko obligazioari.

**5. artikulua.** Orain baimentzen den abalaren xede diren kreditu edo maileguak 2003ko aurrekontualdiaren barruan burutu beharko dira.

**6. artikulua.** Entitate abalatuak, hitzartzen duen kreditu edo maileguaren bidez, lehenengo eta behin, Nafarroako edozein AdministrazioPublikorekin dituen zorrak kitatu beharko ditu.

**7. artikulua.** 1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak mailegua ematen duen kreditu entitateari argibide zehatzak eskatzen ahalko dizkio mailegua harturiko entitateaz, adibidez, Nafarroako Foru Komunitateak abalaturiko kreditu edo maileguaren ondoriozko obligazioen nondik norakoez.

2. Hala izanez gero, entitate hartzekoduna espresuki behaturik dago modu frogagarri batean jakinaraztera kreditua hartu duen entitateak ez duela pagatu, 30 egun naturaleko epean, kapital eta korritu hitzartuak amortizatzeko kuota bakoitza pagatzeko kreditu edo mailegu kontratuan ezarri-

ko epea bukatu eta biharamunetik hasita. Betebehar hau bete ezik, Nafarroako Gobernua eginbehar guztietatik salbuetsiko da jakinarazteke dagoen zor kitatugabearen zenbatekoari dagokionez.

**8. artikulua.** Entitate abalatuak erraztasunak emanen dizkio Ekonomia eta Ogasun Departamentuari ikuskatu eta kontrolatzeko. Departamentuak egiaztatu beharko du abalaturiko kreditu edo maileguko kontratuaren bidez finantzaturiko eragiketak egin egin direla eta errenta direla, baita entitate abalatuak kaudimena duela ere. Horretarako bidezkozat jotzen dituen agiriak begiratzen ahalko ditu.

Horretarako, entitate hark, alde zuzenetik, hiru hilabetean behin, ordaintzen egutegi bat igorriko dio Departamentuari. Honek auditatu beharko du eta harekiko adostasuna adierazi.

**9. artikulua.** Diruzaintzako abala baimendu eta gauzatzeko gastu eta zerga guztiak entitate abalatuaren ez besteren kontu izanen dira.

**10. artikulua.** Ematen den abalak ez dio inolako komisiorik sortuko Nafarroako Foru Komunitateari.

**11. artikulua.** Kreditu kontratuko klausulek Nafarroako Foru Komunitateari Foru Lege honen bidez baimendurik ez dauden eginbeharrak sortzen badizkiote, emaniko abala bertan behera utziko da.

**12. artikulua.** Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legeko 16. artikuluan ezarritako muga 12.020.242,09 eurotik (2.000 milioi pezetatik) 30.050.605,22 euro arte (5.000 milioi pezeta arte) handitzen da.

**13. artikulua.** Abala otsailaren 16ko 49/1989 Foru Dekretuan xedaturikoarekin bat emanen da. Foru Dekretu horren bidez Nafarroako Foru Komunitatearen abalak emateko prozedura arautu zen.

### Azken xedapenak

**Lehenbizikoa.** Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau betearazteko behar diren xedapen eta ebazpen guztiak eman ditzan.

**Bigarrena.** Foru Agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoetako langileendako eta haren bahituretxeetako pentsiodunendako sari batzuk ezartzen dituen**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2003ko urtarrilaren 27an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako administrazio publikoetako langileendako eta haren bahituretxeetako pentsiodunendako sari batzuk ezartzen dituen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.-** Nafarroako administrazio publikoetako langileendako eta haren bahituretxeetako pentsiodunendako sari batzuk ezartzen dituen Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**2.-** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

**3.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoetako langileendako eta haren bahituretxeetako pentsiodunendako sari batzuk ezartzen dituen**

2002ko apirilaren 15ean izenpetu zen "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta sindikatuen arteko Ituna, Nafarroako administrazio publikoetako langileen 2002. eta 2003. urteetarako lan baldintzei buruzkoa."

Itun horretako 2. puntuak hauxe dio:

"– Nafarroako administrazio publikoetako langileen lansariak, urtero, Estatu osorako aurreikusiriko KPI adina gehituko dira, Itunak indarrean diraeino. 2002rako gehitze hori %2koa izan da.

– Urte bakoitzean Nafarroan gertatzen den benetako KPI Estatu osorako aurreikusirikoa baino handiagoa izanez gero, eros-ahalmenari eutsiko zaio. Kasu horretan, alde hori zuzenean lansariei gaineratuko zaie. Finkatu egingen da eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorio ekonomikoak.

– Halaber, hurrengo urteko urtarril edo otsaileko nominan, sari bakar bat pagatuko da, ezin finkatuko dena, aurreko urtean guztira sorturiko lansarien arabera kalkulatu. Nafarroako benetako KPIk zenbat gainditzen duen aurreikusiriko KPI, horrenbestekoa izanen da sari hura."

Klasula hauek betearazteko legezko arautegi bat eman behar da, bai haien edukiagatik, bai burutuko badira behar duten finantzaketagatik, Nafarroako administrazio publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko 39. artikuluko 4. idatz-zatian eta 83. artikuluko 6. idatz-zatiko b) letran xedaturikoa betez. Idatz-zati horietan xedatzen da Administrazio Publikoetan funtzionarioen lansarien igoerak urte bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean agertu behar duela.

2003ko ekitaldian, 2001eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legea bigarrenengoz luzatu denez eta bertan espresuki 2002ko urtarrilaren 1az geroztik KPI espero zena baino gehiago handitzeagatik langileen lansariak gaurkotzeko espresuki aipamenik ez dagoenez, bidezko da legezko arautegia ematea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta sindikatuek 2002ko apirilaren 15ean izenpeturiko Ituneko klausula bete ahal izateko.

Horregatik beharrezkoa da Foru Lege hau onartzea.

**1. artikulua.** Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen eta estatutupeko langileen lansarien orotariko igoera.

1. 2003ko urtarrilaren 1az geroztik, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionario eta estatutupeko langileen lansariak 100eko 2 handituko dira,

langile haien 2002rako lansariei 100eko 1,9607843 gaineraturik.

2. Aurreko puntuan xedaturikoa betez, 2003rako, E mailako hasierako lansaria 11.547,76 eurokoa izanen da.

3. Foru Lege honek indarra hartu eta hurrengo hilabetean, 100eko 1,9607843ko sari bakar bat pagatuko da, ezin finkatuko dena, langileek 2002an guztira sorturiko lansariei gehiturik.

4. 2003an Nafarroako benetako KPI artikulua honetako 1. idatz-zatian ezarririko 100eko 2ko igoera baino handiagoa bada, aldea zuzenean 2003ko lansariei gehituko zaie. Zenbateko hori finkatu egingen da eta 2004ko urtarrilaren 1az geroztik izanen ditu ondorioak. Halaber, aurreko urtean guztira sorturiko lansarien arabera kalkulaturiko sari bakar bat pagatuko da, finkatuko ez dena, desbideratze horren ehuneko adinakoa.

**2. artikulua.** Nafarroako administrazio publiko-etako lan-kontratudunen lansariak.

1. 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako administrazio publikoetako eta haien erakunde autonomoetako lan-kontratudunen lansariak haien hitzarmen kolektiboan zehazten direnak izanen dira, betiere Foru Lege honetako 1. artikuluan ezarririko irizpideei jarraikiz.

Nafarroako gainerako Administrazio Publikoetako lan-kontratudunen lansariak, administrazio publiko bakoitzak bere aurrekontuetan ezartzen dituenak izanen dira, betiere Foru Lege honetako 1. artikuluan ezarririko irizpideei jarraikiz.

**3. artikulua.** Nafarroako Gobernuo kideak eta izendapen libreko behin-behineko langileak.

2003ko ekitaldirako, Nafarroako Gobernuo kideen eta izendapen libreko behin-behineko langileen lansariak Foru Lege honetako 1. artikuluan ezarririko ehuneko eta irizpideen arabera gehituko dira.

**4. artikulua.** Nafarroako administrazio publiko-etako bahituretxeetan babesturiko funtzionarioen eskubide pasiboak.

1. Foru Lege honetako 1. artikuluan xedaturikoa Nafarroako administrazio publikoetako bahituretxeetako pentsioei ere dagokie. Gaurkotzeko eskubidea izanen dute, baita bahituretze horietan babesturiko funtzionarioen eskubide pasiboetan eragina duten lansarien zenbatekoa zehazteko ere.

2. Aurreko idatz-zatian xedaturikoa betez, eskubide pasiboetan eragina duten lansarien zenbatekoak hauexek izanen dira 2003. urterako:

MAILA	LANSARIA	GARESTITZEA
1	10.321,70	7.622,76
2	8.491,13	7.231,76
3	7.558,95	7.032,95
4	7.184,51	6.953,27
5	6.868,78	6.886,01
6	6.577,88	6.823,75
7	6.302,20	6.921,24
8	6.110,02	7.136,99
9	5.831,82	7.077,51
10	5.668,03	6.912,96
11	5.520,60	6.826,74
12	5.203,91	6.639,76
13	4.987,97	6.533,91
14	4.594,01	6.332,88
15	4.231,22	6.042,94
16	4.009,99	5.912,65
17	3.644,32	5.782,63

– Sendagileak, botikariak eta albaiariak:  
Lansaria: 6.449,17  
Sendagilearen lanpostuagatik: 4.214,67

– Osasun laguntzaile teknikoak:  
Lansaria: 3.727,37  
Osasun laguntzaile teknikoaren lanpostuagatik: 3.372,00

– Emaginak:  
Lansaria: 1.378,39

**5. artikulua.**- 1. Kreditu gehikuntza bat ematen da, 26.696.000 eurokoa, gehitzen ahalko dena, 2003rako luzaturiko 2002ko aurrekontuan "Langileekin indarra duen Hitzarmena betetzeko fondoa" izeneko 020000-04000-1620-122600 kontusailari egotziko zaiona, Foru Lege honetan xedaturikoa betetzeko.

2. Kreditu gehikuntza hori 2003rako luzaturiko 2002ko aurrekontutik finantzatuko da, "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" izeneko 112000-11400-8700-000000 kontusailetik.

### Azken xedapenak

**Lehenbizikoa.** Nafarroako Gobernuari baime-na ematen zaio Foru Lege hau garatu eta beteazteko behar diren erregelamenduzko arau guztiak eman ditzan.

**Bigarrena.** Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

